

- **HERRIKO KONTUAK** **Trenbideko lanak** 05
- **KIROLA** **Saskibaloia** 08
- **AIAKO BERRI** **Erniopeko ibilaldia** 11
- **IRITZIA** **Iñaki Garcia** 18
- **MOILA BAZTERRETIK** **Onintza Aiestaran** 19
- **HERRITARRA** **J. Brit eta X. Urretabizkaia** 25



Mendizorrotzeko
altxorra: **gure** igela

Aspaldi galdutako
soinuak berreskuratu eta
gauero entzuten dituzte
berriz igelaren korrokak
Abaromendiko
bizilagunek.

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denotarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoak: 943 83 59 00

tailer mekanikoa

AUTO-LAN C. B.

urrutira joan gabe talde berria zure zerbitzura



Pelotari kalea, 5 ORIO 943 83 00 34



Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

Dorronoro Denda

196etik zure etxean

AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN



Tel 943 83 09 37

Automóviles ZARAUTZ

OTROEN ZERBITZU ORGANA

ERAGIN BAZEN HONAKO ZERBITZUAK

ZARAUTZ. Tlf. 943 13 13 50



AMILIBIA
ONTZIOLAGAK, S. L.

lortu parturaz proiektu eta inbentarioak

guztiz biko kheketa eta arazo-entzuz



Olasoaga-gia auzoa. 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com



islada
USKORINGU ZERBITZUA

Sheila De Miguel - Saray Cendoya

Bakarrak kalea, 7 behean. Oriko 20810
Tel: 943 131 866
e-maila: tsadadario@hotmail.com

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAR



943 83 05 37 / 943 83 27 47

edukitegia

ANTILLA
gestioak



Ahosiari kalea, 2 - 171. 010 83 23 00

Kinokladenda - Uma arropa

argine

www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko BASKONTUA FAMILIA UGARREN TXARTELAREKIN

uranga
autozerbitzua



Aliprox

Endre Gudari kalea 13-15
ORIO
943 83 38 75



TORREALDAY
aholkularitza

Olaraga Aholkulariak
Sozialtate Mugatuak

zuzen-zuzeneko tratuak, zure beharretara egokitua

Berezitasunak:

- ✓ Aholkularitza: fiskala, laborala, juridikoa, kontabilitatekoa.
- ✓ Diru-laguntzen eta bestelako informazioa enprezentzat eta eutonomoentzat, finantzarioa barne.
- ✓ Aseguru artekaritza.

Bereakite 4, behean. Tel: 943 83 48 38 Fax: 943 83 34 00 www.torrealdays.com e-mail: olaraga@olaraga.com



A&E
The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibai Onda pl. 8 Orio

Tel. 943 00 42 44
943 83 51 91



ARKAITZ
Taberna

Pinxoak, plater konbinatuak eta ogitarleko mundialak

ABESLARI KALEA, 4 TEL: 943 83 16 57

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur etxea
20810 ORIO
943 83 15 27

karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Lore Berasaluze

Erredakzio taldeaMikel Aranzabal, Pat Cowie,
Miren Etxeberria, Eli Lasa eta
Jabier Zabaleta**Publizitatea**

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze

Testuen zuzenketaMiren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**Jon Amenabar, Jon Azkue, Iñaki
Garcia, Iker Gurrutxaga, Herrio
natur taldea, Unai Manterola eta
Nikolas Zendoia**Laguntzaileak**

Onintza Aiestaran eta Iñaki Iturain

Diseinua

KARKARA taldea eta Goio Arana

BanatzzaileakEkiñe Miralles eta
Goiuri Unanue (Orio)
Eli Irureta (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua SS-346/90**ISSN** 1132-1105**Tirada** 3.300 aleKARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.KARKARAN argitaratutakoa berremen
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

Lehen jaunartzeak

UNAI MANTEROLA (ERRIKOTXIA BERTSOZALEEN ELKARTEA)**1**


Bideo joko berria eta
marineroen trajea,
printzesa baten jantziarekin
koroa, makilajea.
Berrehun euroko menuarekin
EuroDisney-n biajea.
Lehen Jaunartzeek uzten digute
izugarrizko ajea.

2

Baina halare ez da izango
dena lujoa, itxura;
badakit asko etortzen dela
gure artera gustura.
Baina kanpoak ez dezan sortu
barnearen ahaztura,
hauxe esatea gaurko honetan
nuen egizko ardura.

3

Sinisten dena egitea da
gauzarikan ederrena,
eta prestatuz igaro dute
denbora asko aurrena.
Eta kanpoan agertu behar
barruraino sartzen dena...
Lehen Jaunartzea ez dadin gerta
Jaunartzeetan azkena.

**PUBLIZITATE PREZIOAK****IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZA gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritzak

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Masterrari buruz

Aurreko KARKARAN Ezker Abertzaleko zinegotziek idatzita-koari erantzunez:

1) Egonaldi eta janariak ez dizkit Udalak ordainduko. Ez ditut eskatu ere egin. Haste-ko, gezurra.

2) *Titulitisa* pasa nuen aspaldi, *apendicitisa* bezala. Dagoeneko bi Master eta Doktoretza baditut. Ez dut Masterrik behar; Orioko Udalak behar du, kudeaketarako aukera bat ala bestea izan, beste erakunde publikoekin harremanak Udalak edukiko dituelako.

3) Horrela izan balitz ere, eta langile bezala prestakuntza berezi bat beharko banu, non dago arazoa? Txarra al da Udaleko langileen prestakuntza?

4) Batzordean erabakitako gaia izan zen. Zuen alderdia bakarrik zegoen aurka. Zerbait bozkatzean eta zuen erabakia kontrakoa denean, ez duzue onartzen. Ondo.

5) Langile batzuen gaiak defendatzeko ez dut uste beste batzuen kritikatutako behar denik.

6) Bukatzeko, nire soldatarena: oposaketa martxan jarri zenean, Udalak onartutako soldata da. Zaila da Gipuzkoan kirol teknikari lanetan soldata baxuagoa

duena aurkitzea. Badira herriko teknikari asko soldata handiagoarekin. Eta? Ni ez naiz kexatu.

Dirudienez, zuek daukazue lehentasunak...

MIKEL IZQUIERDO,
ORIOKO KIROL ETA GAZTERIA
TEKNIKARIA

Harribil dantza taldearen merchandaising-a

Igande honetan, maiatzaren 9an, Artisautza Azoka izango dugu herrian eta Harribileko lagunok etorkizuneko emandialdiak prestatzeko, jantziak berritzeko eta beste hainbat eta hainbat gauza eta ekimen egin ahal izateko, taldearen logoak dituzten kamisetak, motxilak eta metxeroak saltzen jarriko ditugu, horretarako prestatuko dugun postuan.

Kamisetak bi motako logoei eta hainbat koloretakoak daude neskentzat, mutilentzat eta haurrentzat. Hamar euro balioko dute kamisetek, motxilek zazpi euro eta metxeroek euro bakarra. Beraz, herritarrok badakizue zer egin. Mila esker harribildarron partetik.

HARRIBIL DANTZA TALDEA

Fibromialgia

Nerbio sistema zentralerako disfunczioak sortzen ditu sentsibilizazio zentralaren sindromeak: Fibromialgia (FM), Neke Kronikoaren Sindromea (SFC) eta Sentsibilitate Kimikoa (SQM). Sindrome konplexuak dira, etiologia ezezagunekoak, bilakaera aldakorrekoak eta, zenbaitetan, beste patologia batzuekin batera azaltzen direnak.

BiziBidek eskatzen duena ondorengoa da, besteak beste: Osasun sistema publikoan diagnosiak egiteko eta sendabideak aplikatzeko irizpideak eguneratu eta bateratzea; medikuei informazio zabala eta eguneratua izateko prestakuntza berezia eskaintzea eta gaixotasun horiek artatzeko behar dituzten baliabideak ematea; Osasun eta Gizarte Saitetik, Osasun Zientzietako ikasketa planetan patologia hauek sartzeko eman behar diren aldaketak eskatu eta ahalbideratzen lagundu Hezkuntza Sailari; gaixotasun horiek jasaten dituztenei, sendabide eta laguntzak eskuratzeko behar diren baliabide ekonomikoak eta sozialak hobetzea eta areagotzea; lan eta gizarte normalakuntzarako lanpostuetako baldintzak egokitu eta lan-zeintzasunak bideratzea; SQM

gaixotasun kontsideratzea, gaixoen bizi kalitatea hobetzeko; gaixoekiko erabateko duintasuna, beren patologien benetako ezagutzan eta errespatuan oinarritua...

Maiatzaren 12an, Fibromialgiaren nazioarteko egunean, Orioko anbulatorioan izango gara, gaixotasunoi buruzko informazio gehiago banatzen.

BIZIBIDE

Akatsak zuzenduz

278. KARKARAN badira zuzendu beharreko gauza pare bat, gutxienez: argazki mundialean, Txokolateneko tabernaren aurretik sagardotegia zegoela jarri genuen, eta ez da horrela; taberna izan baita beti.

Bestalde, tabernaren jabea Joxe Migel Segurola zela jarri genuen eta okerra da hori ere; Bixente Segurolak eta Juana Agirrek jarri zuten Txokolatenea. Eta hortaz, argazkian ageri den Maria Segurola, tabernako nagusiaren alaba da eta ez iloba.

Barkatu eragozpenak.



2011KO UDABERRIRAKO BUKATUKO DITUZTE LANAK, JAURLARITZAKO GARRAIO SAILBURUAREN ARABERA

Treneko zubia lotzea eta geltokia ia guztiz bukatuta

Trenbideko lanak aurrera jarraitzen du, eta izango denaren itxura hartzen ari da, pixkanaka-pixkanaka.

Orioko eta Aiako trenbideko lanak datorren urteko udaberrirako –martxo alderako– bukatuko omen dituzte. Hala adierazi zuen apirilaren 23an, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburu eta ETSko presidente Iñaki Arriolak, trenbideko lanetara egindako bisitan. Bertan izan ziren, besteak beste, Igor Iturain eta Jon Redondo Aiako eta Orioko alkateak eta Euskal Trenbide Sarea erakundeko eta baita Eusko Trenbideetako zuzendaritza taldeetako kideak ere.

Behin lanak bukatuta, Zumaia eta Donostia arteko ibilbidea egiten duten trenak maizago (15-20 minuturo) pasako dira. Hori Aiako eta Orioko lurretan egiten ari diren lanari eta Lasarte, Errekalde eta Añorga lotzen dituen zatiaren bikoizketari esker izango da. Gainera, gaur egun baino dezente gutxiago behar izango dugu ibilbide hori bera egiteko, eta Zumaia-atera-tako trena 25 minutuan iritsiko da Donostiara.

LAN KONPLEXUA

Lan handia da egiten ari direna: 1.635 metroko trenbide zatia bikoiztu behar dute, 577 metroko biaduktua eginda –EAEko tren sareko zubirik luzeena da–. 190 metroko tunela ere egin behar izan da. Horrez gain, Santio Errekarako pasonibela kendu da eta, azkenik, geltokia erabat berritu.

EGUNGO EGOERA

Tren geltokiaren aurrean biribilgunea egiteko Oriai ibaiari lekua jan behar izan diotela eta, Itsasbazerretako eta Kos-



Lurraren gainetik ia 10 metrora joango da trena Aiako eta Orioko geltoki berrian jendea hartu eta uzteko.

KARKARA

tetako Zuzendaritzarekin izandako arazoak medio, lanak urtebete atzeratu dira. Hala ere, atzerapenak atzerapen, martxa onean doaz orain

lanak: geltokitik Mota azpiko tunelerainoko zubiaren egitura egina dago. Tunelaren sarrerako ahokadura bukatu duten arren, lanak osatzeko

daude, 10 metro geratzen baitzaizkie barruan zulatzeke oraindik eta, Zarautz aldera ere, geltokia lur gaineko zatia-rekin lotzeko dago. Geltokiko lanak ere martxa onean doaz. Igeltseroak dabilta uneotan paretak txukuntzen eta nasetako markesinak jartzen.

Geltokiaren berezitasunak

Geltokia, trena bezalaxe, altueran doa; gaur egun baino 10 metro altuago. Beheko solairua irekia da eta aparkalekuak jarriko dira; lehen solairuan kokatua dago geltokia eta bertan egongo da txartelak ateratzeko makina; trena, 2. solairuan hartuko da. Moila aldeko espaloia hartu beharko dute oinezkoek zubian, eta igogailua edo eskailera erabiliko dute 1. solairura zubitxotik iristeko. Billetea erosi eta 2. solairura igo beharko dute.

Gaur egun baino goizago ibili beharko da, trena entzun eta zubian korrika joanda ez digu-eta denborarik emango geltokira garaiz iristeko.

GELTOKIKO ZERBITZUAK

ETSko Komunikazio sailetik adierazi dutenez, geltoki berrian ez da erabiltzaileak lagundu eta bidaiari-txartelak erosteko leihatilarik egongo, eta, hortaz, makinekin egin beharko dugu erosketa. Makina horietan eta igogailuetan jarritako interfonoen bidez egin beharko zaie aurre sor daitezkeen arazoei.

Bestalde, ETSk esan digunez, ez dute komunik jarriko geltoki berrian.

INOIZ BAINO MAHAI GEHIAGO IZANGO DIRA AURTEN

Pilota eta antzerkiarekin biribilduko da Artisau Azoka

Antzinako eta oraingo lanbideak ikusi eta ezagutzeko aukera izango dugu, beste behin ere, maiatzaren 9an egingo den Artisau Azokan.

42 saltoki-iaz baino bi gehiago- jarriko dira aurtan Artisautea Azokan, lanbideak erakutsi eta eskuz egindako produktuak saltzeko. Udalak adierazi duenez, tailerrak nabarmendu nahi izan dira aurtan eta lanbideak erakusten dituzten mahaiak inoiz baino gehiago izango dira. Goiz eta arratsaldean (11:00-14:00 eta 17:00-20:00) izango da zeramika, bitxiak, egur lanak... ikusteko aukera.

Zerura begira daude azokako antolatzaileak, eguraldiak zeresan handia izango baitu mahaiak non jarri erabakitzerakoan eta jendea erakartzeko. Eguraldia lagun bada, kultur etxe atzeko plazan eta Danbolin musika eskolako atarian jarriko dira; eurria bada, Iturbide kaleko aterpean sartu beharko dituzte; bi kasuetan zimitorioan eta plazan, behintzat, bai izango dira mahaiak.

Urtero bezala, azoka balea harrapatu zeneko urteurrenaren inguruan egiten denez, arrantza eta itsasoko gaiekin apainduko dituzte kaleak. Aurtan, ordea, ez da azoka bakarrik izango, bestelako ekitaldiak ere antolatu baitira, eguna osatzeko: kale antzerkia eta pilota partidak.



Tailerrek izango dute garrantzia aurtengo edizioan.

KARKARA

**Goiz eta arratsaldean,
11:00-14:00 eta
17:00- 20:00, izango da zabalik azoka igandean**

EGUN OSOKO ANIMAZIOA
Goizetik hasi eta ia eguzkia ezkutatu arte arituko da Mimo

Clown kale antzerkia txokoak eta jendea animatzen.

Goizeko 11:30ean, berriz, herriko frontoian izango da pilota ikuskizuna: lau eta erdiko partida jokatu da aurrena eta Almandozek eta Aranburuk neurtuko dituzte indarrak. Atzetik, berriz, binakako partida izango da eta Goñi II.ak eta Kokak osatutako bikoteari irabazten saiatuko dira Garrido V.a eta Lasa III.a.

Egun berean salduko dira sarrerak, frontoiko leihatilan, 10 euroren truke.

LABUR

EDUKIONTZI BERRIAK Olio jasotzeko

Etxeko olio zaharra jasotzeko edukiontzia jarri ditu Urola Kostako Udala Elkartek: hiruna Orion eta Aian. Behin jasota, biodiesel bihurtuko da olio hori. Ondo itxitako beirazko edo plastikozko ontzian bota beharko da sukaldeko olio laranja koloreko edukiontzira.

Bestalde, garbiguneez eraman beharko dira hemendik aurrera etxeko hondakin arriskutsuak.

HAURRESKOLA Matrikulazioa

2010-11 ikasturtean seme-alaba Maria Maestra haurreskolan matrikulatu nahi dutenek maiatzean -14ra bitartean- eman beharko dute izena. Astelehenetik ostiralera, bi ordu eta erdi izango dituzte gurasoek matrikula egiteko: 09:30etik 11:00etara; eta 15:00etik 16:00etara. 943 89 06 25 telefonoan argitu beharko dira zalantzak.

DIRU LAGUNTZAK Langabetuei

Lana lortzeko prestakuntza ikastaroetako joan etorrietarako diru-laguntzak emango ditu Orioko Udalak herrian erroladatutako langabetuentzat. Joan etorriok sorturiko gastuen %50 arte ordainduko du, betiere, 200 euro arte urteko eta pertsonako.

Igo zaituz haize berrietara!

Galerna I

943890416 - 677149934
galerna1orio@hotmail.com

Pinturak
ELKAR

pintura eta paperatze lanak zoru leunketa

Agostoa Inurrieta
943 89 45 74 10 61 20 25
ZARAUZ

2010
zkue

Tf: 943 13 04 38

DBH2KO IKASLEAK ETA OSTARGIKO JOSTUNAK ARITU DIRA LANEAN

Zanpantzar jantzi berriak kaleratzeko moduan Ikastola

Zanpantzar jantziak berriitu ditu ikastolak eta, gainera, lehen hamar baziren eta orain hogeiz izango dituzte.

Urte mordera da, dagoeneko, Orioko Herri Ikastolako 8. mailako ikasleek zanpantzar jantziak egin zituztela eta, ikasturtearen hasieran, kultur azpibatzerdeak berritzea erabaki zuen, oraindik herrian askotan erabiltzen direlako, festetan batez ere.

Auzolanerako deialdia egin zen orduan, erabiltzen dituzten elkardeen, ikasle ohien eta egungo ikasleen artean eta, azkenean, DBH 2ko ikasleak aritu dira, urte hasieratik hona, ostiral arratsaldeetan, jantziak berritzen. Ostargi elkarteko emakume jostunek ere parte hartu dute josteko lanetan.

Ikastolako Nekane Larrañaga irakaslea arduratu da berritze lana zuzentzeaz eta esan digunez, *zanpantzar gutxi genituen, batzuk kalte-tuta eta, behin berritzen hasita, gehiago egin nahi genuen, hamar genituen eta hogeiz izan nahi ditugu. Horrez gain, bere garaian 14 urteko haurrek egin zituzten, beren neurrira, baina oraingoan handiagoak prestatu ditugu, tamaina errealean, edonork erabiltzeko moduan. Eskerrak eman nahi dizkiet bai ikasleei baita Ostargiko emakumeei ere, fin aritu baitira, eta oso lan txukuna*



Ikastolako ikasleek isopoak prestatzen ari diren bitartean, Ostargikoak ohialekin lanean ari dira.

KARKARA

egin dugu denon artean.

Ikastola Egunerako prest izan nahi dituzte, eta ordutik aurrera ikastolan eskaria egin duen edonork erabil ditzake, txukun mantenduz gero.

OSAGARRIAK

20na ttuntturro –txapelak– eta isopo –eskuan daramatena– prestatu dituzte, bakoitza bere jantziekin, baina larruak eta joareak Nafarroatik ekarri behar zituztela esan digu Nekane: *Guk ezin dugu joarrik egin edo larrua landu, horretarako artisauna izan*

beharra dago. Euskal Herrian gizon batek bakarrik egiten ditu, Nafarroan, eta oso garestiak dira. Batzuk eskatu ditugu, baina pixkanaka joan beharko dugu osatzen, dirua lortu ahala.

GARBIGARRIAK

Aurrekoan, ttuntturroak kartulinazkoak egin zituzten, baina oso material ahula eta hauskorra denez, plastikozkoak egitea erabaki dute. Gainera, gaineko oihala kendu daitekeenez, erabili ondoren garbitzeko modua izango da.

20na ttuntturro eta isopo prestatu dituzte, baina larruak eta joareak Nafarroatik ekarri behar dituzte, eta oso garestiak dira

Kalez kale saltoka asko izertitzen da, hori egia da, baina orain ez da zikin itzultzeko aitzakiarik izango, gaineratu du Nekane.

Gabon
TABERNA
plater, kaxak, apintxoak
Telefonoa: 943 83 06 09



RAMIRO
argazkiak

·ezkontza erreportajeak
600 eurotik gora
·jaunartzeak
50 eurotik gora

943 83 10 48 / 610 697 668
www.fotoramiro.com

Goizeko
KAFETEGIA
943 83 28 55
Ara Leizundri 33 behean - ORIO
Autobus parada ondoan



Saskibaloian federatutako taldeak ere bukatu du aurtengo denboraldia.

KARKARA

ESKOLARTEKO TXAPELKETA IRABAZI DUTE ORIOKO IKASTOLAKO 3 TALDEK

Saskibaloian aurreko puntan dabilta oriotarrak

Eskolarteko txapelketetako finalak jokatu ziren apirillean saskibaloian eta txapel bana lortu zuten herriko hiru taldek.

Albiste ezin hobeak ekarri zituen saskibaloiak apirilaren 24an eta 25ean Oriora. Izan ere, Orioko Herri Ikastolako LHko 6. eta 5. mailako neskek eta 5. mailako mutilek eskolarteko txapelketa irabazi zuten. Horrez gain, partidako jokalaririk onenaren saria jaso zuten Sara Iparragirrek, Leire Manterolak eta Aitor Atorrasagastik eta, gainera, Gipuzkoako Txapelaldun dira, infantil kategoriako lehen urtekoekin, ZAST Zarautz 1 taldean aritzen diren Eider Zubelzu, Teresa Argibe eta Naroa Lizaso oriotarrak.

EMAITZA PAREGABEAK

Apirilaren 22an jokatu zuten LHko 6. mailako neskek azken

partida, Orokietako taldearen aurka. Lehia estua izan bazen ere, azken laurden paregabea egin zuten oriotarrek eta 18 puntuko aldearekin irabazi zuten azkenean: 48-30. Sara Iparragirrek jokalaririk onenaren saria jaso zuen, bestekak beste, azken 20 puntutatik 14 berak lortu zituelako.

Igandean jokatu ziren gainerako bi finalak: Orioko eta Getariako nesken arteko norgehiagoka izan zen aurrena. Indarrez paretso ibili ziren bi taldeak, baina getariarrek 15 jaurtiketarekin huts egin ondoren, 36-28, aldeko emaitzarekin bukatu zuten oriotarrek. Kasu horretan Leire Manterola izendatu zuten jokalaririk onena.

Orioko ikastolako mutilek Zarauzko ikastolako 14 Agurrek taldearen aurkako lehia irabazi zuten gero. Oriotarrek saskiratzeko duten abilezia aparta agerian geratu zen

Jokalaririk onenaren saria jaso zuten Sara Iparragirrek, Leire Manterolak eta Aitor Atorrasagastik

hasiera-hasieratik eta 72 puntu egin zituzten -28 Zarauzkoek-. Aitor Atorrasagastiri eman zioten jokalaririk onenaren saria.

FEDERATUAK

Bukatu da denboraldia federatuen Ligan aritzen diren Orioko Ikastola ZKEko neskentzako. Bosgarren egin dute, 20 punturekin. Jokaturako 14 partidetatik 6 irabazi dituzte eta 8 galdu. 478 puntu egin dituzte eta 693 jaso.

LABUR

ATLETISMOA

Amilibia primeran

Ternua Arratzu-Urdaibai mendi lasterketa irabazi zuen Nerea Amilibiak maiatzaren 2an eta, horrekin batera, Euskadiko txapela ere ekarri zuen etxera aiarrak. 3 ordu, 21 minutu eta 55 segundo behar izan zituen lasterketa bukatzeko.

SQUASH

2. txanpa

Zarauzko Squash Ligako lehen txanpa bukatuta, aurrera jarraitzen dute, finalera bidean, Iñigo Agirre eta Jose Luis Azkonobietari oriotarrek. Xabier Iribarrek, aldiz, ezin izan du final laurdenetarako txartelik lortu, 2 lehia irabazita eta 4 galduta, ate ondangan geratu da, puntu gutxiren faltan.

Final laurdenak maiatzaren 9tik 16ra bitartean jokatu dira eta KARKARA inprentara bidaltzerako zehaztu gabe zituzten aurkariak Agirrek eta Azkonobietak.

SOFBOLA

Espainiako txapelaldun

Kadeteen kategoriako Eguzki-OBB talde oriotarra Espainiako txapelaldun da. Maiatzaren lehen astean, Barzelonan, Viladecans hirian jokatu zuten txapelketa eta Espainiako, Galiziako, Herrialde Katalanetako eta Euskal Herriko 8 talde aritu ziren lehia, larunbatean hasi eta igandera arte. norgehiagoka guztiak irabazi zituzten oriotarrek.

Bestalde, txapelketako jokalaririk onenaren saria ere Orioko Bate Bizkorra-keko Sara Etxeberriarentzat izan zen.

EMAKUMEZKOEN REALA, ERREGINAREN KOPAN DA

Azken txanpan dira Orioko futbol jokalariei eta zaleak

Liga bukatzean daude Orioko Futbol Taldeko jokalariei, entrenatzaile, zale eta gainerakoak.

Nahikoa larri, kategorian galtzeko arriskuan dabilta aurten denboraldian Orioko hainbat futbol talde. Hiru jardunaldien faltan, sailkapeneko beheko postuetan daude ia denak.

Emakumezkoak dira, orain arte, behintzat, sailkapenaren erditik gora dauden bakarrak eta seitik 3. daude Kopan. Azken bi lehiatan, gainera, 6 puntu lortu dituzte eta gero eta urrutiago dute jaitzieraren mamua. Denboraldia bukatu arteko jardunaldiak, ordea, gogorak izango dituzte: sailkapeneko lehen bi postuetan dauden Beti Gazteren eta Beti Onaren kontra jardungo dute aurrena, eta Hondarribiaren aurka aritu beharko dute gero.

Preferente kategorian aritzen diren mutilen, berriz, bi partida geratzen zaizkie aurten gero bukatzeko. Momentuz, 11. daude eta, salbu badiara ere, ez daude lasai egoteko moduan, borroka handia eta puntu gutxiren alde baitago atzeko taldeen artean.

Jubenilek ere zaleen laguntza beharko dute zulotik ateratzeko. Jaitziera postuetan daude, 11., eta indarrak hartu beharko dituzte datozen norgehiagokak irabazteko,



Lesakako Beti Gazte taldearen aurka aritu ziren jubentilak maiatzaren 1ean. 0-4 galdu zuten.

KARKARA

besteak beste, liderraren aurka ere aritu beharko baitute.

Infantilei ere nahikoa aldaia gora jarri zaie denboraldia. Azken bigarren dira, 11 punturekin. Hurrengo hiru jardunaldietatik bi jokatu dituzte etxean: datorrena, Añorgaren kontra eta azkena, maiatzaren 22an edo 23an Ostadarren kontra.

Balantzaren beste aldean daude kadeteak. Igoera fasea jokatzeko ari dira eta ez daukate galtzeko ezer. Datozen bi partidak etxean jokatu dituzte, gainera, aurretik, pun-

tu gutxira, dituen Arrasate eta Ekintza taldeen kontra. Azkeneko hitzorduan, Ilintxarekin neurtu beharko dituzte indarrak.

EMAKUMEZKOEN REALA

Liga bukatuta, Erreginaren Kopa jokatzeko hasi berri da, taldearen historian lehen aldiz, Ainhoa Mateos Realarekin. Maiatzaren aurreneko asteburuan jokatu zuten final zortzirenetako lehia Madril. Torreon de Ardoz taldearen aurka aritu ziren eta hurnako emaitzarekin bueltatu

Hurrengo jardunaldietan zaleen laguntza beharko dute, kategorian galtzeko arriskuan daudenak, batez ere

ziren etxera. Buelako partida, berriz, maiatzaren 9an izango da, Zubietan.



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
Tf: 605 732 913
Faxo: 943 020 213
ventas@sagasti@euskalnet.net
Bizkaia kalea, 20-1 B
20600 Zarautz

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereztrak: Arrain zopa
Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05/
943 13 25 32



Sortzen-Ikasbatuazek antolatutako festan Gipuzkoako eskoletako eta Lardizabaleko hainbat ikasle, guraso eta irakasle elkartu ziren gozatzeko asmoz.

KARKARA

MENDIA, PAILAZOA, ESKULANA ETA DANTZARENTZAKO LEKUA EGIN ZUTEN IGANDEAN

Aia musikaz blai, Sortzen-Ikasbatuaz festan

Festa giroa izan zen Aian aurreko igandean Sortzen-Ikasbatuaz Euskal Eskola Publiko Berriaren urteko festa zela eta. Aiako eskolak, elkarteak bazkide ez bada ere, ongi etorria eman zien eguna ondo pasatzeko asmoarekin gerturatutako guztiei.

Eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, festa eguna ondo pasatzeko asmoz elkartu ziren 250tik gora lagun Aian, maiatzaren 2an.

Goizean, Joxe Mari Aiertza arduratu zen Elkarteak eskatutako mendi irteeraz, eta 30 bat lagunekin ibili zen Pagoeta inguruan. Hamabiak aldera bueltatu ziren, aiarren

harrerarekin bat egiteko.

Frontoia lepo zegoela, Joxe Mari Txapartegi Txapasekin eskolan landutako *Bizitza kantu bat da* eta *Handitzen*

naizenean, ama kantatu zituzten ikasle aiarrek eta, jarraian, Porrotx pailazoaren gidaritzapean, Gipuzkoako bazter guztietatik etorritako hainbat

ikastola eta eskoletako ikasle, guraso eta langileen emandiaz gozatzeko aukera izan zuten hurbildutako guztiek.

Haurrak bazkaldu eta tailerretan zebiltzan bitartean, helduek kantu bazkaria antolatu zuten Kanua jatetxean. Margotzea, hankapaloetan ibiltzea, herri kiroletan lehia-tzea... zeregin ugari izan zen euritik babestutako frontoian. Lauak aldera, denak berriro elkartzeko, erromeria izan zen Modesto musikariaren laguntzaz.

Sortzen-Ikasbatuaz Gipuzkoako kideak orain dela hiru urte hasi ziren Aiara etortzen Udalaren baimenarekin, eta oso leku aproposa eta gustukoa aurkitu zuten hantxe urteko festa antolatzeko.

Guztion eskola

Bizi Euskal Eskola da Iruñean ospatuko den festaren aurtengo leloa. Zein euskaltzalek ez du bat egingo horrekin? Gure artean zein da eskola publiko euskalduna, propioa, euskal curriculumean oinarritua, parte-hartzailea eta munduari irekia nahi ez duena?

Orduan, zergatik jarraitzen dugu gure zilborrari begira, norberarena egia bakarra delakoan? Zer arraiok lausotzen digu ikusmena, biltzen gaituen helburu hori ez ikusteraino? Proiektu eta ahalegin guztien metaketa zor diogun amets hori, noizko?

XABIER GAITON | LARDIZABAL ESKOLAKO IRAKASLEA

MAIATZAREN 9AN IZANGO DA ETA BIDEGOIANDIK ATERAKO DIRA KIROLARIAK

Erniopeko mendi ibilaldian bilduko dira mendizaleak

Zortzigarren edizioa du aurtengoan Erniopeko mendi ibilaldiak. Datorren igandean, maiatzaren 9an izango da gero eta mendizale gehiago biltzen dituen proba.

Gipuzkoaren erdian dagoen Bidegoiango herria izango da aurtien Erniopeko zortzi herrien arteko VII. mendi ibilaldiaren abiapuntua, maiatzaren 9an. Herriko plazatik aterako dira mendizaleak eta Gipuzkoako mendi maitatuenetarikoa den Ernioaren magalean dauden herrietan barna ibiliko dira.

BI IBILBIDE

Norberaren sasoiaren eta gogoaren arabera, bi ibilbide egiteko aukera ematen dute Erniopeko ibilaldiko antolatzailleek: luzea, 48,6 kilometro eta 2.400 metroko desnibelekoa edo motza, 25 kilometro eta 2.000 metroko desnibelekoa.

Ibilbide luzea egin nahi dutenek goiz jaiki beharko dute, 11 orduko bidea baitute egiteko. 06:00etan abiatuko dira Bidegoiango plazatik. Errezilera jaitziko dira, eskuin aldean Ernio ikusteko aukera izango dute eta mendiaren inguruan buelta emango dute gero, aldapa gogorrari indarrez ekin eta Zelatungo gaina harrapatzeko. Iturriotzera jaitziko dira ondoren eta handik, Ernio Txikitik barrena etorriko dira Aiara, 08:30etik 10:30era bitartean.

Herriko plazan jarriko den mahaian indarrak hartu eta Asteasu aldera abiatuko dira. Ernioaren magal-magalean, erabat babestuta dagoen Larraulera joango dira gero eta handik, Alkizara.

Tolosaldeko bailara izango dute helmuga ondoren; Hernialde, hain zuzen ere.



Aiako eta Orioko 19 lagunek eman dute izena, oraingoan.

KARKARA

08:30etik 10:30era bitartean pasako dira mendizaleak Aiatik. Indarrak hartu eta Asteasura abiatuko dira

Baso eta aldapa artean ibilita, Albizturren egingo dute azken geldialdia, abiapuntuan, Bidegoianen bukatu aurretik.

Motzarekin nahikoa dutenek, aldiz, denbora gehiago izango dute ohean egoteko, goizeko zortzietan aterako baitira Bidegoiango plazatik. 5 ordu eta erdiz arituko dira, gutxigorabehera, hankei eraginez, hara eta hona, atzera eta aurrera.

Ibilbide luzea egingo dute-

nekez bezala, Zelatundik Alkizarako bidea hartuko dute Aiatik, Asteasutik eta Larrauldik pasa gabe eta, handik, Alkizatik, Hernialde eta Albiztur pasa eta gero, Bidegoianera itzuliko dira.

AIARRAK ETA ORIOTARRAK

KARKARA inprentara bidaltzerako orduan, 4 aiara eta 15 oriotar ziren ibilaldian parte hartzeak. Horietatik bakarra da emakumezkoa eta ibilbide luzea egingo dute gehienek –hiru lagunek bakarrik aukeratu dute motza–.

IZENA EMATEKO

Bi era daude mendi ibilaldi horretan izena emateko: www.erniozaleak.org helbidearen bitartez edo, igandean bertan, irteera baino ordu bete lehenago Bidegoiango plazan. Mendizale bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeagatik.

LABUR

NEKAZARITZA

Asentzio feria

Maiatzaren 16an egingo da aurtien Asentzio feria. Baserriko produktuak eta animaliak izango dira goizean protagonista nagusi, lanabesen erakusketa eta salmentarekin batera, 10:00etatik 14:00etara.

Eguerdian, baserriko ofizioen erakusketa eta bertako produktuen dastaketa izango dira plazan eta aparkalekuan. Frontoian, aldiz, herri kirol emanaldia nagusituko da: Euskadiko emakumezkoen harri jasotze txapelketa izango da aurrena. Aimar Irigoienek bi errekor hausteko ahalegina egingo du gero –14 arrebako zilindro zaharrarekin 3 minutuko saioa eta 12 arrebakoarekin 5 minutuko saioa–; marka hobetzen saiatuko da atzetik Unai Lertxundi; eta azkenik harri kubikoarekin 5 minutuko saioa ikusteko aukera izango da.

Laja II.ak eta Unai Narbaizak eskainitako erromeriarekin bukatuko da festa.

ETXEBIZITZA

Alokairuan

Aia Lantzen SA-ren jabetzako lau merkataritza lokal eta bost trasteleku alokatuko direla jakinarazi du Udalak. 40 metro koadro inguru dituzte lokalek, eta 25 bat metro koadro trastelekuak.

Interesatuak Donostiako Zarautz etorbidean (82. zenbakia, 3. pisua) aurkeztu beharko dituzte proposamenak hilaren 25a baino lehen.

Bestalde, higiezinak ikusi nahi dituztenek Aiako Udalarekin edo Aia Lantzenekin –943 21 23 54– jarri beharko dute harremanetan, bien artean eguna eta ordua zehazteko.

AIAKO LEIHOA

Zenbat aurreratu dugu?

Azken aldiko zenbait gertaera triste ikusita, neure buruari hauxe galdetzen jardun naiz: zenbat aurreratu diagu, ba? Naturaren aurrean, alegia.

Gogoetak egiten ditudanean, garai bateko gure base-rietan genuen bizikera hartaz! Giro txarra bazen, ona bazen, uholdeak baziren, hai-zeteak baziren, elurteak baziren, jelateak baziren, argi-indarrak bazen ez bazen, beste inoren laguntzarik gabe moldatzen ginela.

Ez bi edo hiru laguneko familiak; zortzi, hamar, hamabi laguneko familiak; zaharrak eta ume txikiak tartean.

Ogia jango bazen, soroan garia erein behar zen. Katilukada esne hartuko bazen, ukuilura joan eta behiari esnea bildu behar izaten zitzaion.

Ez dut esan nahi, orain baino artistagoak ginenik, bai-zik eta geure saiakera derri-gorrezkoarekin, nola moldatzen ginen.

Gaur egun, beste aukerak dauzkagu egokituak bizitzeko. Eta eskerrak horri. Baina bizi-bidea egokitua dugun heinean, prestatuta al gaude ezbeharrei aurre egiteko?

Ikusi besterik ez dago, argi-indarra falta zaigun aldi bakoi-

tzean; aibala, orain nola prestatuko dugu bazkaria? Edo afaria? Kandelarik badugu etxean? Lourdestik ekarritakoren bat bai agian. Baina poxpolorik? Orain, zigarroa erretzea galarazten ari diren honetan, txiskeroak ere gutxitzen ariko dira.

Bestalde, oraingo erai-kuntza; solairu askoko horietan, goi samarrean bizi bazara, atera kontuak: igogailua-

ren botoiari alferrik emango diozu.

Begira, orain dela gutxi, Katalunia alde nola egon den. Uste baino elur gehiago egin zuela, eta hainbeste mila biztanle, argindarrik gabe, ilunpean. Inongo herrialderik atzeratuena balitz bezala.

Errepideetako elurrak kentzeko bai, bazituzten tramankulu ikusgarriak. Gara-biak ere bai, azken modelo-koak. Baina, gasolindegietan ezin egin zerbitzurik, argindarraren faltan.

Horra, herrialde aurreratu bat hutsaren hurrengo bihurtzeko zorian. Hari bate-tik zintzilik bagaude, zenbat aurreratu dugu?

Hori guztia gutxi balitz, auto elektrikoak datoz.

NIKOLAS ZENDOIA

Ogia jango bazen, soroan garia erein behar zen eta katilukada esne hartzeko ukuilura joan eta behiari esnea bildu

Begira, orain dela gutxi, Katalunia alde nola egon den. Hainbeste mila biztanle, argindarrik gabe, ilunpean

TXOKOAK ETA JENDEA



Bizikleta gainean Oiartzunen

Udaberriaren hasierarekin batera aire zabalean mugitzeko gogoia ere etortzen da, eta horren adierazle da Aiako guraso elkarteak Oiartzunera antolatu zuen irteera. 14 kilometroko ibilbidea, batzuek oinez eta gehienek bizikletaz egin zutena, giro ederrean eta umore hobearekin.

Argazkian bertan dituzue denak Oiartzungo plazan, ibilbidea bukatu ondoren, pozik, hamaiketakoarekin indarrak erabat berreskuratu aurretik.



Bereziak ditu ezaugarriak gure igeltxoak: marra beltza du begietatik aurreko hanketaraino eta zuhaitzetan ibiltzeko behatetako disko itsaskorrek.

XABI RUBIO

Oh, happy day!

HERRIO NATUR TALDEA

Gure ohiko monotonia-tik atera gaituena *Hyla meridionalis* izeneko igela da, hegoaldeko zuhaitzigela. Orokorrean, klima epe-lagoa gustuko badu ere, Mendizorrotz inguruan, Orio eta Donostia bitartean bizitzera ere primeran egokitu da anfibio hori. Azal leun berdea du, 5,5 cm ere neur ditzake eta zuhaitzetan ibiltzea du gustuko: horretarako disko itsaskorrek ditu behatetan, ben-

Iritsi da udaberria eta, horrekin batera, kra-a-r korroka sakon, geldo eta indartsuak entzuten hasi gara Talaimendiren inguruan. Urratu da orain arteko gaueko isiltasuna, eta Zaragueta eskolako alboko putzuan igelen jarduna eten gabekoa da. Iritsi da beste abesbatza, eta ez dira berehalakoan isilduko heldu da-eta animalion ugaltze garaia.

tosa moduan zuhaitzetan gora egiten laguntzeko. Burua ten-tea du, eta muturra laburra eta biribildua. Begiak alboetan eta kanporatuak eta, bereizgarri gisa, marra beltz bat du,

sudur aldetik aurreko hanketaraino iristen dena.

UDABERRIA

Igeltxo hauekin orkikusi nahi baditu orain du garaia, uda-

berrian, neguko loaren ostean, hurbiltzen baitira ura dagoen ingurura. Ez da erraza animalia txiki hauek ikustea, baina isiltasun pixka batekin eta pazientzia apur bate-



Igelaren argazki ederrak Xabi Rubiorenak dira. Besteak Herrio Natur Taldeak ateratakoak.

kin aleren bat ikustea lortuko duzue; eta, ikusten ez badituzue ere, entzun, seguru entzungo duzuela haien korroka indartsua.

Udaberritik aurrera arrek ozen egiten dute korroka, emeak txunditzeko. Horretarako, leku estrategikoak hautatzen dituzte eta, ahoko zakuak puztuz, korrokak hasten dira. Dei-korrokek ilunabarrean hasi eta goizaldeko ordu txikietara arte iraun dezakete. Koru bikainak osatzen dituzte!

URA, BERRIA

Anfibioek ura eta lehorra behar dute bizitzeko eta, munduan, animalia talderik zaur-

garrienetakoak dira: aldaketa txikienak ere kaltegarriak izan daitezke haien bizi iraupenerako, alegia. Ura behar dute, eta garbia. Klimaren aldaketa, gaixotasunak eta urmaelen galera dira anfibioek dituzten arazorik larrienak.

Orion bizi diren igeltxo hauen arazoak horiek ere badira eta, hala ere, oraindik gure artean dira. Lehen baino gutxiago dira, baina, babestuta daudenez –Eusko Jaurlaritzak galtzeko arriskupeko espezie izendatu zuen 1996an–, desagertu ez daitezkeen neurriak hartu dira azken urteotan: Donostiako Haritzalde naturzale-elkartek

emandako bultzadaz, Gipuzkoako Foru Aldundiak *Hyla meridionalis* kudeatzeko Plana eta babesteko arau osagarriak onartu zituen 1999. urtean. Zergatik babestu? Mendizorrotzeko populazioa delako Hego Euskal Herri osoan dugun bakarra.

Babes-neurri gisa, igelak ugaltzeko putzu sare bat osatzen hasi ziren, eta hori delata eraiki zuten Zaragueta eskolaren ondoko urmaela 2003. urtean. Putzu horrez gain, Itsaspeko bidean dagoen Aranoko erreka ere baliatzen dute igelak beren ugaltetarako. Azkenik, 2004. urtean Arkumetegiko putzua ere eraiki zen Orion,

eta bertara Lezkadiko erreka-kastotik sartzen da ura.

UDAZKENA

Esan bezala, orain duzue igelkorua entzuteko aukera. Une honetatik bertatik iraila bukaera arte edo izango duzuen eserlekua kontzerturako libre, gorago aipatutako putzu horietakoren baten inguruan.

Ez gehiegi hurbildu, uxatu nahi ez badituzue. Lurrera ongi begiratu, igeltxorik ez zapaltzeko. Ezin dira ukitu, ezin dira kaltetu; legeaketa sen onak agintzen digute. Bestetik gabe, kantuaz gozatu. Eta, ausartzen bazarete, zenbaitzen saiatu.



HERRIO NATUR TALDEA ETA XABI RUBIO


FITXA TEKNIKOA**Izena:** Hegoaldeko zuhaitz-igela**Espezia:** *Hyla meridionalis***Familia:** Hylidae**Ordena:** Anuruak**Klasea:** Anfibioak**BABES MAILA****Arriskupeko Itsas eta Basa Landaredi eta Fauna****Espezien Euskal Katalogoa:** EAEan galtzeko arriskuan dagoen anfibio bakarra da.**Bernako Hitzarmena,** Europako Basa-Bizitzaren eta Ingurune Naturalaren Kontserbazioari buruzkoa: *zorrozki babestutako fauna-espezia*.**92/43/CEE Arteztaraua,** habitat naturalen eta basafauna eta floraren kontserbazioari buruzkoa: *Babes zorrotza behar duten garrantzi komunitarioko animalia eta landare-espezieak* izeneko Anexoa (IV.enean) dago.**Espainiako Zerrendan:** *Interes bereziko espezie* gisa izendatua.**Eusko Jaurlaritza:** galtzeko arriskupeko espeziea (16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa).**Gipuzkoako Foru Aldundia:** *Hyla meridionalisen Kudeatzeko Plana eta babesteko arau osagarriak,* onartuta (GAO 221, 1999ko azaroaren 18a).**BITXIKERIAK**

Anfibioak lehorrera salto egin zuten lehen ornodunak izan ziren, horregatik maite dute ura, eta horregatik dute ezinezko putzuzulorik gabeko mundua. Orain dela 300 milioi urte baino gehiago azaldu ziren, pentsa! dinosuroen hankapean ibiliak dira gure igelaren arbasoak!

Gure aitona-amonek baserrietako paretetan ikusten omen zituzten igel eskalatzailak. Ondo koskortutako makina bat hurrek ere igelekin jolasean jarduten omen zuten kanpinaren eta San Juan ermitaren inguruetan. Guztion ahaleginarekin gure umek ere korroka dotorea izango dute hondartzako bidelagun. Ez dezatela izan Donostiako kaleetako autobusetan eta Bruesako maskotarengan Hegoaldeko zuhaitz igelaren irudi bakarra.

MENDIZORROTZEKO PUTZUAK (1998-2006)

- 1.- Berio
- 2.- Goienetxe
- 3.- Pokopandegi
- 4.- Errotatxo
- 5.- Munotxabal
- 6.- Errotaberri
- 7.- Arpita
- 8.- Etxebeste
- 9.- Urteta
- 10.- Egiolera
- 11.- Artikula Aundi
- 12.- Arrate
- 13.- Aginagako urtegia
- 14.- Aranoko putzua
- 15.- Egiluze
- 16.- Iranguen
- 17.- Zaraguetako putzua
- 18.- Arkumetegi
- 19.- Etume



“Giltza gure esku dago”

Aranzadi Zientzia Elkarteko Herpetologia Behatokiko kide Ainhoa Iraolarekin solasean izan ginen Zarautzen, hangoa baita biologoa. Urte askotan jardun du Hegoaldeko zuhaitz-igela ikertzen, egiten ari den doktore tesiaren muina baita. Aitzakia hori hartuta, sarritan izan da Zaragueta eskola ondoko putzuari bisita egiten. Hona hemen kontatu diguna.

Zeintzuk izan dira Hegoaldeko zuhaitz-igelaren gain-beheraren arrazoiak Gipuzkoan?

Arrazoi nagusia espeziearen habitataren suntsipena izan da, hau da, espezieak bizi eta ugaltzeko behar dituen urmaelen hondatzea.

Anfibioekumeakizateko ur putzuak behar dituzte eta horiek lehortzerakoan edo kutsatzerakoan ez dira ugaltzen, eta denborarekin igelak desagertu egiten dira. Orion, kanpinaren inguruan adibidez, 1978. urtean oraindik bazen igelik. Gerora, putzu hori desagertu egin zen eta 1996. urtean entzun zen azken igela kantari.

Beste arrazoi garrantzitsua ugaltzeko espezie exotikoak askatzea da. Kanpotarrak diren espezieak giza-kiak ekarri eta bertakoengan kalte handiak eragin dituzte. Denok ezagutzen ditugun arrain gorriak (karpinak), dorkak edo ibai-karramarro amerikarrak, esaterako. Sekulako kaltea egiten dute naturan.

Zer da igelaren Kudeaketa Plana?

Lehenik, espeziearen inguruko informazioa bildu behar da, antzinako datuak jaso,

populazioen gaur egungo egoera ezagutu, baita espeziearen biologia ere. Ondoren, espezieak beharrezkoa duen bizi-eremua sortu behar da.

Garai batean, Mendizorrotzen anfibio honek zuen banaketa berreskuratzeko putzuak eratu dira. Baina igelaren populazioari eusteko oso garrantzitsua da putzu horien arteko konexioa mantentzea, *korridore berdeen* bidez. Azkenik, espeziearen bilakaera ezagutzeko Kudeaketa Planaren jarraipena egin behar da, urteetan zehar.

Zein lan mota egin duzu igelaren inguruan?

Kudeaketa Plana aurrera eramateko, Mendizorrotzeko populazioaren jatorria eta historia ebolutiboa ezagutu beharrez goen. Hango populazioa nondik etorri zen eta haren arbasoak zeintzuk ziren jakin nahi genuen. Horrela, eraturako ugalketa lekuetan igelak sartzea beharrezkoa izanez gero –bertakoak desagertzeko zorian daudelako–, zeintzuk ekarri jakingo genuke eta genetikoki antza handiena dutenak ekarriko genituzke.

Galdera horiei guztiei erantzuteko, Mendizorrotzeko populazioa Europa eta Afri-



Mendizorrotz inguruko putzuak zaintzen jarduten da Ainhoa Iraola.

kako hainbat populazioarekin alderatu dut, hurbilketa genetikoen bidez.

Azterketa genetikoek frogatu al dute ezer berezirik?

Bai, azterketa horiek adierazten dute hemengo zein Europako populazioak ipar Afrikako kolonizaziotik etorri zirela. Kolonizazio hori, orain dela 8.000 urte gertatu zen. Ondorioz, Donostiako populazioaren antzinako arbasoak afrikarrak dira, Marokoko iparraldekoak. Gainera, gertuen dituen populazioen oso antze-

koa da genetikoki, hala nola, Miarrizteko edo Kataluniako populazioen antzekoa.

Gauzak horrela, igelak hemengo putzuetan sartu behar izanez gero, gertuen dauzkagun putzuetatik ekarriko genituzke; Miarriztetik, alegia.

Zein da igelaren egoera Orion? Zein bere etorkizuna?

Gaur egungo egoera hobea da 1998. urtekoa baino. Putzu berriak sortu dira eta gehienetan espeziea ugaltu egiten dela ikusi dugu. Horrez gain,



Floridako dortoka (*Trachemys scripta*). TOM BRENNAN



Karpina (*Carassius auratus*). [HTTP://FL.BIOLOGY.USQS.GOV](http://fl.biology.usqs.gov)



HERRIO

Uhandre marmolairea (*Triturus marmoratus*).

I. SANZ

ugal-putzu horiek beste hainbat anfibio-espezieiek erabiltzen dituzte. Esaterako, uhandre marmolaireek eta uhandre palmatuak, apo eta igel arruntek zein txantxikuek.

Hala ere, Orioko putzuak mendilerroko beste putzuekiko isolatuta geratu dira, Mendizorrotzen iparraldean eta mendebaldean putzu gutxi egin direlako. Kezkagarria da, baita ere, lehen aipatutako espezie exotikoen presentzia, hainbat ugal-putzutan.

Igelaren etorkizuna Kudeaketa Planaren jarraipenaren

menpe dago, eta administrazioak bide horretan jarraitu behar duela uste dut. Aurrera begira, beharrezkoa da, putzu berriak eraikitzeaz gain, daudenak zaintzea eta haien arteko konexioa ahalbidetzea.

Horretan, Kudeaketa Planaren jarraipena egitea eta administrazioaren laguntza ezinbestekoak dira. Bestalde, herritarrok zer esan eta zer egin handia dugu; neurri batean, Hegoaldeko Zuhaitz-igela ezagutzea, errespetatzea eta babesteko giltza gure esku dago.

EZAUGARRIAK

“Azal leun berdea du, 5,5 cm ere neur ditzake eta zuhaitzetan ibiltzea du gustuko: horretarako disko itsaskorrek ditu behatzen, bentosa moduan zuhaitzetan gora egiten laguntzeko. Burua tentea du, eta muturra laburra eta biribildua. Begiak alboetan eta kanporatuak eta, bereizgarri gisa, marra beltz bat du, sudur aldetik aurreko hanketaraino iristen dena”

DELIKATUAK

“Anfibioek ura eta lehorra behar dute bizitzeko eta, munduan, animalia talderik zaurgarrienetakoak dira”

BABESTU

“Babes-neurri gisa, igelak ugaltzeko putzu sare bat osatzen hasi ziren, eta hori dela-eta eraiki zuten Zaragueta eskolaren ondoko urmaela 2003. urtean”

MAITASUN DEIA

“Udaberritik aurrera arrek ozen egiten dute korroka emeak txunditzeko.”

ETSAIAK

“Denok ezagutzen ditugun arrain gorriek (karpinek), dotokek eta ibai karramarro amerikarrek sekulako kaltea egiten dute naturan”

IRAGANA

“Orion, kanpinaren inguruan adibidez, 1978. urtean oraindik bazen igelik. Gerora putzu hori desagertu egin zen”

ETORKIZUNA

“Igelaren etorkizuna Kudeaketa Planaren jarraipenaren menpe dago”

GURE ARDURA

“Neurri batean, Hegoaldeko Zuhaitz-igela ezagutzea, errespetatzea eta babesteko giltza herritarron esku dago”

ADARRETATIK HELDUTA

Iluntasuna eta okultismoa

Iluntasuna eta okultismoa dira *Gipuzkoa Aurrera* lobby ekonomikoaren ezaugarriak. Batzar Nagusietatik aparte jokatzeko du eta inor gutxi daki bertan zer egosten duten enpresarietako guztion diruarekin. Markel Olanori galdetuta, ez du inolako azalpenik ematen diru publikoarekin egingo diren proiektuei buruz eta hori Ezker Batuarentzat onartezina da.

Otsailaren 9an, esate batera, *Tribuna Euskadi* foroan, Adegiko presidente Zubiaurre jaunak iragarri zuen *Gipuzkoa Aurrera* 9 proiektu bultzatuko dituela enpresa gipuzkoarretan. Kriasiaren aurkako Planaren barruko diru-laguntzen deialdia, ordea, ez zen argitaratu GAOn martxoaren 2ra arte. EBren Batzar Nagusietako taldeak informazio zehatza eskatu zion Aldundiari otsailaren 9an, *Gipuzkoa Aurrera* bultzatu behar omen dituen proiektu horiei buruz: zein enpresek bideratuko dituzten, zein inbertsio publikoekin egingo diren, helburuak...

Aldundiak ez zion gure eskariari erantzun martxoaren 17a arte eta, erantzunedo horretan, argitu gabe utzi zituen gure kezka guztiak. Harrigarria da: Adegiko otsailaren 9an egiten du iragarpena, buletinean martxoaren 2an argitaratzen dira diru-laguntzen oinarriak eta Markel Olanok horri buruzko informazioa ukatzen die



IÑAKI GARCIA
EB-BERDEAKEKO ZINEGOTZIA

**Adegiko
presidente
Zubiarre jaunak
esan zuen 9
proiektu
bultzatuko dituela
*Gipuzkoa Aurrera***

**Diru publikoarekin
finantziatuko dira
ezagutzen ez
ditugun proiektu
pribatuak**

herriarren ordezkari. Esandakoa: iluntasuna eta okultismoa nagusi.

Are gehiago: martxoaren 10ean komunikabideek argitaratu zuten desadostasunak daudela *Gipuzkoa Aurrera* proiektuei buruz, bai

*lobby*aren baitan eta bai gobernuko sozio baten alde ere. Zehatz esateko, Ogasun departamentuaren ustez, diru-laguntza deialdiak ez ditu betetzen konkurrentzia zuzenaren arauak eta talde publiko-pribatu batek aukeratutako enpresa kopuru txiki bati bakarrik ematen dio parte hartzeko aukera. Hamaikabatek iradokitzen du laguntzak dagoeneko erabakita daudela eta garbi geratu da desadostasunak daudela gobernuko kideen artean eta gauzak ez doazela ondo *Gipuzkoa Aurrera*ren.

Bestalde, martxoaren 23an, prentsaren bidez, jakin dugu elkarte bat sortuko dela, azpiegitura zientifiko handietan parte hartzeko eta hor ere 9 enpresek parte hartuko dutela. Markel Olanok ez du argitu ea enpresa horiek zerikusirik baduten *Gipuzkoa Aurrera*ekin. Ez dugu ulertzen zertara datorren sekretismo hori.

Zer da saldu nahi diguten sektore publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlanaren kontu hau? Azken finean, hau da: diru publikoarekin finantziatuko direla ezagutzen ez ditugun proiektu pribatuak, enpresari gutxi batzuen onerako.

Politikak ezin du egon *lobby* ekonomiko baten esanetara; administrazio publikoak herriarren gehiengoaren onerako erabakiak hartu behar ditu, eta ez gutxi batzuen probetxurakoak.

NIRE HONETAN

Kirolaren elkarbizitza

Izugarrria da aurten herriko saskibaloiak egin duen lana. Nahiz eta gorenean dabilzan herriarren emaitzak ez diren izan onenak, herrian bertan, Orioko Herri Ikastolak luzerako jokalariek dituela erakutsi du, baita Zaraguetak ere; eta bien ekarpenak kirol honi mesedea egin diezaike aurrerantzean.

Garai zaila egokituko zaie askori orain, Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoek kirola aukeratu beharko baitute hurrengo urtera begira. Eta hori tamalgarria da gurea bezalako herri txiki batean, kirol bati ateak ixten dizkiogu-eta. Hiru talde txapeldun eskolarrean, infantil nesken taldea Gipuzkoako onenekin lehian, Zaraguetan ere jokari politikak dituzte eta horiei ateak ixtea gogorra da. Beraz, ea ZASTek, ikastolak, Zaraguetak eta Futbol Taldeak irtenbidea ematen dieten egoera honi eta ordutegiak bateratzeko gai diren, haurrek kirol bat baino gehiago egiteko aukerarekin jarrai dezaten herri mugitu gabe. Eta orain da mahaiaren bueltan esertzeko garaia. Kirol honekiko pasioa dut bai, baina ni ere haurra izan nintzen eta atea itxi zidaten...

IKER GURRUTXAGA

HAIZE BERRI
salsasak - patatas - kofreak

Platar konbinatuak,
bakatah,
hamburgesak,
ruloak,
eguneko menua...

eta esnera eramateko zerbitzua!

Irudia irudikatzen du. Erabilera: 1. dena. 98 940 81 11 12. Auzoak gureak dira!

Faroko bakaflaoa
daukagu

**ITSAS
MENDI**

guztizak

Euzko Gudari, 5 - Tel. 943 24 87 74 - Orrio

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

MOILA BAZTERRETIK

Mila bederatziehun...

ONINTZA AIESTARAN

Beti galdegin izan diot nire buruari ea benetako ala gezurretako oriotarra naizen. Printzipioz ez ditut oriotar izateak berekin dakartzan zenbait ezaugarri. Hasteko, ez da nire senitarteko zuzenik bizi Orion. Zuhaitz

genealogikoan atzera egin eta Orion bizi den gure aita zenaren osaba-izeba eta lehengusuren bat aurki daiteke, ordea. Nire lau aitona-amonak Aian jaiotakoak dira. Lauak ere baserri giroan jaioak, haziak eta heziak. Arbasoak ikusita beraz, ezin esan itsasoko kultura handiegirik dudarik. Kostako herri batean bizi naiz, baina ez nuke kostaldekoa naizenik esango. Etxe ondoko Ori ibaian dauden korrokoiez gain, ez dakit beste arrainen bat bereizteko gauza izango nintzatekeen.

Kontuak kontu, bada herriarekin lotzen nauen zer-bait: 1901. urtean arrantzatutako balea, hain zuzen ere. Maiatzaren 14an, baina 1986. urtean etorri nintzen mundu honetara. 85 urte lehenago oriotarrek arrantzatu zuten

azken balea. Txikitatik halako emozioa eta dardara sentitzen nuen Benito Lertxundik musikatutako Balearen bertsoak entzutean. Eta ezin ukatu gogo biziz abesten ez nituenik. Aldi berean, askotan entzun behar izan ditut balearerikiko konparazioak eta bromak. Txiste erraza, badakizu.

Duela jada 9 urte balearen harrapaketa menduena ospatu genuenean, azkenean heroi haiek omendu genituela pentsatu nuen. Orduz geroztik 5 urtetik behin festa errepikatzea erabaki zen. 2006an izan zen bigarren festa eta heldu den urtean izango da hirugarrena. Ez dakit honezkerori Oriko Arraun Elkartearen denbora askoa egon zen gezurrezko balea bizirik egongo den... Tira, bestela oriotarrok egingo dugu erre-

**Maiatzaren 14an,
baina 1986. urtean
etorri nintzen
mundu honetara.
85 urte lehenago
oriotarrek
arrantzatu zuten
azken balea**

**Erabaki ea egiazko
oriotarren artean
onartzen nauzen**

plikaren bat. Edo agian hobe, erabaki ea egiazko oriotarren artean onartzen nauzen ala ez.

TUZALA
kartelak jokatzen
arratsaldean
Tel. 943 83 12 59

**iñaki argazkiak
caperochipi**
ezkontzako asmarik bai?
www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com

KOLON TXIKI
Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

"JUAN LARRAZPU" ERAKUNTZAK, S.L.
(Jon Arruti)
• Baserrietako ingurutzako eta egurrezko esturuetan sartuta
• Etxeen berrikuntzak:
• Bideak • Biletak
• Kuxinak • Jaina gelak...
Tel. 945 710 696 (Jon Arruti) Estropalar. 30-33/Orio

kutxa

TANATORIO ZARAUZ
EUROFUNERARIAS TALDEA
Hileta eta zerbitzu orokorrak
* Donostia eta probintziako ospitaleetan
* Aldiaroko zerbitzuak
* Belatorio gelak
* Karciak, eskolak, transtasioak...
Araba kalea, 35 Zarautz
Tel: 943 88 91 37 / Fax: 943 88 46 41
e-mail: harraspitu@tanaspil.net

Lizaso dekorazioa
Eusko Gudari, 4/5
Tel. 945 82 07 82 Fax: 945 82 07 83

Maider Arrilaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361
oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

LOBETXU JETETXEN
Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

Karkarako erredakzioan aritzeko langilea behar dugu



Karkarak langile bat hartu nahi du, aldizkariaren lan taldean aritzeko. Interesa baduzu, aldizkariaren lokalera jo ezazu, Lanpostu hori betetzeko eskatzen diren baldintzak eta eskaintzen diren ordainsariak eta gainontzekoak ezagutzeko.

Telefonoz ere hots egin dezakezu: 943 83 15 27.

Izena emateko azken eguna ekainaren 4a izango da.

egunero-egunero,
zuekin...

www.karkara.com

Konektatuai!

URAITZ
Lurrintegia
Arantza

Enaketa? Tfn: 943 83 18 97

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak

For: uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Euzko Gudari, 5

tel/fax: 943 89 00 69
Bikala kalea 4. 28.300 ZARAUZ

URBIDE

ITURGINTZA, BERGINTZA
GASA, BAINU, ERAKUSKETA



1951-52koen Lehen Jaunartzea

L 951 eta 1952 urteak bitartean jaiotakoek Lehen Jaunartzekoa da goiko erretratua, kandelak pitzen diren uneko irudia.

Orain dela 5 urte ere berak atera genituen atal honetan, Lehen Jaunartzean baita ere, baina orduko argazkian elizkizunaren ondorengo txokolatadan agertzen ziren, garai hartan ez baitzen gaur egungo moduko bazkariekin eta opariekin ospatzen.

Apaiza Biktorio Unzetabarrenetxea da, baina meza-mutila, berriz, ez dakigu nor den.

Ondorengo hauek dira argazkian ageri direnak: Lehen lerroan, Alejandro Ortega -zuriz- eta Joxe Mari Esoain; atzean, Jesus Mari Perona eta ezagutzen ez dugun bat; betaurrekoduna Patxi Oliden da eta bere bikotekidea Joxe Mari Gozategi; Patxiren atzean Manuel Agirresarobe eta

Joxe Ignazio Ostolaza -kopeta ikusten zaio- daude, eta jarraian Santi Gurrutzaga.

Informazioa eman digutenek marinelez jantzitakoa nor den esaten ez dute asmatu, aurpegia argi eta garbi ikusten zaion arren.

ARGAZKIA: NIEVES ARRUTI
INFORMAZIOA: JOXE MARI ESOAIN
ETA JOXE IGNAZIO OSTOLAZA
XALBARDIN

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA



KRITIKA



Malenkonia taldeak kontzertu ederra eman zuen apirilaren 30ean hondartzako Txalupa musika antzokian. J.AMENABAR

Poliki-poliki, aurrerantz bidea eginez, tinko, irmo

Txalupa musika antzokiko laugarren kontzertuaz gozatzeko aukera izan genuen apirilaren azken asteburuan. Dagoeneko, poliki-poliki, aurrerantz bidea eginez doa Orioko hondartzako erdiko etxetxoa.

Estilo oso ezberdina lantzen duten euskal taldeak pasa dira bertatik, orain artean behintzat, ahoan zapore gozoa utziz erabat.

Azken emanaldira salto eginda, Eneko Mobydick izan zen lehena eszenatokia hartzen. Ahots urratu eta gita-

rra soil baten laguntzarekin kontzertu borobila osatu zuen. Bakarleri eskarmetatua, kontzertuaren *tempo* ak ondo markatzen asmatu zuen, jendearen interesari amaiera arte eutsiz.

Azken bi kantak Britney Spears-en eta Leonard Cohen handiaren bertsio bana izan ziren, eta artistak duen polibalentzia bistan geratu zen era horretan.

Gero etorri zen Malenkonia eta azken diskoa aurkeztu zigun bertaratuoi. Sei laguneko formazio arrarona –bi gitarra, baxua, bioli-

na, bateria eta organoak osatzen dute– *Hegazkadak dakar ekaitza* diskoko kantuak izan genituen entzungai. Ondo konpaktatutako taldea, diskoan duten erritmo lasaia utzi, eta egurra ematera irten ziren zuzenean. Nabarmentzekoa izan zen, baita ere, abeslariak, kantaren batean, zuen Kerobia taldearen ukitua.

Bestelakoan, gozamen hutsa!

JON AMENABAR

IKASLEAK IDAZLE



JON AZKUE |

DBH 4

Gazteak eta alkohola

Gazteoi, normala den bezala, parrandan irtetea gustatzen zaigu eta, noski, alkoholik gabe ezin dibertitu. Baina guztiz egia al da hori?

Heldu askoren ustetan alkohola ez da beharrezkoa, hori gabe ere gustura asko pasa baitaiteke, musikarekin dantza pixka bat egin eta lagunekin egonda nahikoa da eta.

Ni ere iritzi berekoa naiz, egia da, adibidez, zerbait edanda lotsa galdu egiten dela eta horrela neska edo mutil batengana gerturatzea errazagoa dela, esaterako, baina azkenerako askorentzat beharrezkoa bihurtzen da.

Gazte askok diote *pixka bat bixitu gabe ezin da ondo pasa, gaua ez da berdina izaten*. Baina noizbait proba eginez gero alkoholik gabe ederki pasatzea dagoela egiaztatzen da.


Zaragueta
Eskola Orto

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

ZINGIRA
Intertek

ZATOK GURERA!

042 83 37 82
918 79 44 38

PERTSIANAK
A
K
O
M
A
Z

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

TEL: 943 329 01 MUGIKOTTA 600 79 52 27

SOLOZABAL
autoeskola



Eusko Gudari, 30-1. ezk
telef: 943 83 08 12

INKESTA

“Laster sanpedro festak datoz eta aurten aste tartean tokatzen da ekainaren 29a. Ikusita azken urteotan sanpedro jaiek izan duten gainbehera...”

MEREZI AL DU SANPEDRO JAIK ORAIN ARTE BEZALA OSPATZEN SEGITZEAK ALA HOBE LITZATEKE PARRANDARAKO INDARRAK SANIKOLASETAN GASTATZEA?

Erantzun ezazu www.karkara.com webgunean.

Aurrekoan: Euskal Herriko Txirrindularien Itzuliak eragindako aldaketak onartze-koak al dira? Jasotako erantzunak: %40ari ondo iruditzen zaio horrela; %40ak beste modu batera egin behar direla uste du; eta %20ari bost axola zaio.

OSPAKIZUNA



Manuel eta Maria

Elkarrekin ezkondu zirela 50 urte pasa direla-eta, urrezko ezteiak ospatu zituzten apirilaren 23an Manuel Eizagirre eta Maria Pilar Zubizarreta senar-emazteek. Ospakizunaren eguna, berez, ostirala tokatzen bazen ere, larunbatean bildu zen bikotea beren familiarekin, egun handia elkarrekin pasatzeko.

Mezatan apaizak esan ziena gogora ekarriz, aurrerantzean, hamarna urteka ospatuko omen dituzte ezteiak. 2020an ekarriko dugu, hortaz, lerrootara bien beste argazki bat.

ZORIONAK!

Aiarren
pazientziari

Azken aldian zaila zaigu Aia eta Orio lotzen dituen kilometro horiek ordu laurdenetik behera egitea. Izan ere, obra ugari ditugu errepedetan –egin beharrekoak guztiak– eta denbora erraz pasatzen zaigu horiek eragindako oztopoak direla eta: ura bideratzeko lanak, semaforoarekin etendako bideak, trenbideko lanak... Azkarrago iristen da bat Oriotik Donostiara, Aiatik Oriora baino.

Aiarron pazientzia saritzeko modukoa dela iruditzen zaigu, egunero-egunero arnasa sakon hartu eta txintxo eta iskanbilik sortu gabe, arazoei aurre egiten diegualako.

agirresarobe ARKITEKTURA
OBRA ETA PROIEKTUAK

ETREBIZITZA ETA LEGALEN ERREFORMA PROIEKTUAK
FATZAKA ETA TITULUEN ERABILITZE PROIEKTUAK, IRDARAILUAK
OBRA ZUZENDARITZAK, INFORMEAK, BREVIO KORDENAKUNTZA

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK, HIRIBIKTZA, LURREN KUDAKETA

BORJA AGIRRESAROBEE LOPEZ DE, ARKITEKTOA
IFURDIA D. S. BILBAOAN, ZARAGOZA

TEL: 945 731 722

XABIER URRETABIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Ateak automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

☎ 943 83 17 74

Arantzale, 31 - 20810 OIBO

LURDES
ARRAULDEGI

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

2GURPIL

Bosquedo 7 - 3 - 20810 Orso (Gipuzkoa)

TEL: 943 833 880 | WWW: www.2gurpilibizikletak.com | <http://www.2gurpilibizikletak.com>

Allianz

Marigre Zaldúa
aseguru agentea

Itzi Orosko, 10 behe-koilara
telefonoa: 943 13 47 62
faxa: 943 83 67 52
e-maila: zaldua@itzirosko.com, per@itzirosko.com

He apaitdegia

MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - Ibaio
Tel. 943 13 47 29
ORIO

OROIMENAREN KUTXA



Horrelakoxea zen hondartza garai hartan, horrelakoxeak, automobilak.

ARTXIBOKOA

JAIOTAKOAK

- Sara Arrillaga Azpiroz, Orion, apirilaren 27an.
- Iraia Peña Fernandez, Orion, apirilaren 23an.

EZKONDUTAKOAK

- Ainara Peña Illarramendi eta Iñaki Zaldúa Sarasola, Orion, Oartzunen, maiatzaren 1ean.
- Jose Antonio Ramiro Arrondo eta Alazne Gezalaga Orthous, Orion, maiatzaren 1ean.

HILDAKOAK

- Joakina Azkue Azpiroz, Orion, maiatzaren 1ean. 90 urte.
- Joakina Mugika Peña, Orion, apirilaren 23an. 89 urte.

Orioko gizartea orain 45 urte

Orain 51 urte, 1959an, Donostiako neska gazte batek, Ana Maria Etxaidek, Iruñean filologiako ikasketak bukatuta, tesia egiteko honako gaia aukeratu zuen: *Castellano y vasco en el habla de Orio*, Koldo Mitxelenak bultzatuta. Lana bukatuta, liburua argitaratu zuen 1968an.

Liburua interesgarria da, Orioko jendeak orduan erdaraz nola hitz egiten zuten azaltzen du, euskarak nolako eragina zuen haiek erdaraz hitz egiteko moduan. Hemen ez dago tokirik azaltzeko zenbaterainokoa eta nolakoa zen eragin hori. Labur esanda: ikaragarria, oso adibide politak eskaintzen ditu.

Liburuaren hasieran, Ana

Mariak Orioko orduko gizartearen erradiografia sozioekonomiko samurra egin zuen. Interesgarria da haren irakurketa eta, oraingo begiekin ikusita, gauza batzuetan harrigarria ere bai.

1965eko urtarrilean Oriok 3.100 biztanle zituen, 3 ostatu, lau altzari-fabrika (150 langile), bi zeramika eta lau tailer mekaniko (autoak eta baporeen motoreak konpontzeko). Orioko ekonomia, orduan, itsasoari oso lotua zegoen: bi ontziola zeuden (bien artean, urtean, bost bapore egiten zituztenak), 25 bapore (1936an, 13 ziren), 420 arrantzale (gehienak oriotarrak), eta 5 eskabetxeria, eta haietan lanean 400 lagun, gehienak emakumeak eta

haurrak. Umeak 10 urterekin hasten ziren lanean, horretarako Udalaren baimena behar izaten zuten, eta Hezkuntzako Ikuskaritzarena. Baimena goizean edo arratsaldean lan egiteko zen, egunaren beste erdia eskolan ematekotan. Hala ere, eskabetxerietan lanerako jende nahikorik ez, eta Azpeitiatik ere etortzen zen jendea lan horretara.

Etxaide andreak zioenez, Orio ondo zegoen komunikatuta Donostiarekin, autobusa egunean bi aldiz zebilelako. Turismoari dagokionez, esaten du udan 1.500 inguru udatari inguratzen zela herri- eta, udako igandeetan, 250 bat auto biltzen zela hondartzan.

IÑAKI ITURAIN

Eskela edo urteurrenoko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



HEMENGOKO
PATXI OLIDEN
HARREREGIA

PATXI OLIDEN

Hemengo horagia
Etxeko produktiboak: txipak, odaki,
txokolate, txeriz, krakaketak...

Eusko Gudarri, 25 Tel. 943 83 00 10

atez lagia
MIRANDA
KARKARA

Gaiztoa eta leihua, eskadeta...
behar dituz arrak, lanak
agutu ditzitegu

Gudaeta bidet. 1 x 660 42 32 70s KARKARA

ODITZ

Amara ezabetea niretzat
agutu da emakumezkoak

Tel. 945 83 00 89

XABI URRETABIZKAIA ETA JOSEBA BRIT | TXALUPA MUSIKA ANTZOKIKOAK

“Orain artean jendea bai, baina oriotar gutxi etorri da”

Xabi eta Joseba Orioko musika panorama aldatzen ari dira kalitatezko kontzertuak antolatuz Txalupa Musika Antzokian.

Nolatan hasi zineten tabernan kontzertuak egiten?

Xabi: Txalupa taberna nire kargu hartu nuenean, Joseba tabernari zegoen, eta biok oso musika zaleak garenez, tabernan kontzertuak egiteko gogoia piztu zitzaigun. Lehenengo, pare bat udatan kontzertuak antolatu genituen, taberna kanpoan, baina oso noiz behinka egiten ziren, bat edo bi kontzertu antolatzen genituen urtean.

Joseba: Kontzertu horiek oso ondo atera ziren eta mai-zago egitea erabaki genuen. Lekua aproposa da, eta tabernari beste ikuspegi bat ematera animatu ginen. Konturatu ginen Txalupak *after* fama bazuela oraindik eta, ospe txar hori aldatzeko, tabernaren izena mantendu genuen baina musika antzokia gehitu genion atzetik: Txalupa Musika Antzokia.

Gogor hasi zarete, gainera, ezta? Soinu-ekipoa erosi duzue, oholta jarri...

J: Abenduan hasi ginen gaiari serio heltzen eta konturatu ginen ez zela erraza izango. Kontzertuetako soinua oso onaitatea beharrezkotzat hartu genuen, eszenatokia ere bai, erakargarria behar zuten... baina ez genekien zenbat diru eskatuko ziguten taldeek.

X: Horrez gain, datak finkatu beharra zegoen. Maiztean otorduak ematen ditugu eta horrek asko zailtzen du kontzertuaren prestaketa. Ezin da arratsaldean soinu probarik egin, kontzertua has-tear delako bezeroak ezin dira mahaitik altxarazi... beraz,



Uda partean geldialdia egin eta urrian hasiko dira berriz, kontzertuekin. KARKARA

Ekarri ditugun taldeekin jendeak oso ondo erantzun du. Funky gaua ere ikaragarria izan zen

otsailetik maiatzera egitea erabaki genuen. Urrian hasiko gara berriz, Gabonak inguru-
ra arte.

Orain arte nolakoa izan da jendearen erantzuna?

J: Karteleko taldeak ez ezagutu arren, jendea konfiantzaz etorriko den momentu bat

Herriko tabernek ezer antolatu gabe duten jendea izateko, guk kontzertuak antolatu behar ditugu

iristea nahi dugu, jakin dezate-
tela irizpide sendoa dugula. Horretarako, talde onak ekarri ditugu hasieratik, ibilbi-
dea hasia dutenak. Horretaz gain, oso garbi dugu hain eza-
gunak ez diren kalitatezko tal-
deei bertan jotzea eskaini
behar diegula; sorkuntzarako
lekua izatea ere nahi dugu.

X: Bikustik, UEK, Gora Japon, Napoka Iria... orain arte ekarri ditugun taldeek izen pixka bat bazuten, eta jendeak oso ondo erantzun du. Funky gaua... ikaragarria izan zen!

Maiatzaren 7an OKKren bertsio gaua duzue. Nolatan?

J: Klean jakin genuen bertsio gaua nahi zutela antolatu berriz, iaz bezala, baina ez zutela egiteko lekurik. Gustura ari gara elkarlanean eta, dena ondo ateratzen bada, ziurrenik gauza gehiago ere prestatuko ditugu elkarrekin.

X: Orain arteko kontzertuetan jendea bai, baina oriotar gutxi zegoela ikusita, arrazoi bat gehiago Gazte Asanbladarekin kolaboratzeko.

Desengainua hartu duzue herritarrekin?

X: Pixka bat bai. Badakigu herrian badirela musikazale ugari, baina badirudi lotsa ematen digula herriko gauzetan parte hartzeak. Aldiz, Durangotik, Bergaratik, Eibartik... etorri izan dira batzuk.

J: Orain arte 5 euroko sarre-
ra kobratu dugu eskatutakoa
ordaindu ahal izateko talde-
ei. Herriko taberna batek ezer
antolatu gabe duen jendea
izateko guk kontzertuak anto-
latu behar ditugu eta horrek
koste handia du. Baliteke
herritarrei sarrerak atzera era-
gitea, baina diru-iturri hori
gabe ezinezkoa da maila
horretako kontzertuak izatea.

Auzokideekin-edo arazorik izan duzue?

X: Orain arte, ez. Etxebizitza-
tara ematen duen atea ixten
dugu, kontzertuen ordutegia
eta bolumena zaintzen ditu-
gu, eta abar. Detaile horiekin
kontuz gabiltza proiektuak
hazten jarrai dezan.

TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA - ZARAUTZ

Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
Aia-Orio	06:11	06:41	07:11	07:41	08:11	08:41	09:11	10:11	11:11	12:11	12:41	13:11	13:41	14:11
Zarauetz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20

Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	14:41	15:11	15:41	16:11	16:41	17:11	17:41	18:11	18:41	19:11	19:41	20:11	21:11	22:11
Zarauetz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUETZ - DONOSTIA

Zarauetz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
Aia-Orio	06:15	06:45	07:15	07:45	08:15	08:45	09:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39

Zarauetz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:09	22:38
Aia-Orio	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15	22:45
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	22:39	23:09

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com

AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

Donostia	Orio	Zarauetz	Zarauetz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:00
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30
11:40	12:15	12:25		10:30	11:00
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:00
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:00
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:00
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30
17:40	18:15	18:25		16:30	17:00
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30
19:40	20:15	20:25		19:30	20:00
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00

ASTEBURUETAN

Donostia	Orio	Zarauetz	Zarauetz	Orio	Donostia
08:00	08:35	08:45	06:45	06:55	07:30
09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40

OHARRA: lanegunetan koaetro erpicun ordutetako autobuseak Urtetik pasatzen dira. Asteburuetan, beriz, gutxiak pasatzen dira. Koaetro funetako ordutak lanegunetarako (laneguna) zerbitzuei bakarriz dagozko.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek daroma. Zerbitzuan buruzko informazioa lortzeko zerbait bide daude:

www.landabus.com Tel: 943 24 01 14 sms-a 5280 zerbitzua

ITSASOA

Maiatza	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
07	12:42 eta _____	05:58 eta 18:14	☾
08	01:23 eta 14:08	07:42 eta 19:59	☾
09	02:19 eta 15:01	08:32 eta 20:43	☾
10	03:08 eta 15:35	09:16 eta 21:13	☾
11	03:43 eta 16:03	09:50 eta 20:10	☾
12	04:14 eta 16:30	10:21 eta 22:38	☾
13	04:44 eta 16:59	10:51 eta 23:07	☾
14	05:16 eta 17:29	11:23 eta 23:38	☾
15	05:49 eta 18:01	11:56 eta _____	☾
16	06:24 eta 18:36	00:12 eta 12:31	☾
17	07:02 eta 19:14	00:48 eta 13:09	☾
18	07:43 eta 19:56	01:27 eta 13:51	☾
19	08:31 eta 20:45	02:12 eta 14:39	☾
20	09:28 eta 21:46	03:04 eta 15:39	☾
21	10:41 eta 23:08	04:40 eta 16:58	☾

ZAINZAKO BOTIKAK



MAIATZA

- 7an, Zulaika.
- 8an eta 9an, G. Artiñano.
- 10ean, Iriarte.
- 11n, Zulaika.
- 12an, Mutiozabal.
- 13an, Etxeberria.
- 14an, G. Artiñano
- 15etik 21era, Lasa.
- 22an eta 23an, Mutiozabal.

- Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8.
943 13 31 83 Zarauetz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea,17.
943 83 23 98 Zarauetz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12.
943 83 29 70 Zarauetz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16.
943 13 38 14 Zarauetz
- Lasa:** Herriko plaza.
943 83 09 36 Orio
- G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17.
943 13 40 19 Zarauetz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea
943 13 29 83 Zarauetz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41
943 13 39 94 Zarauetz

PODOLOGIA

■ Aian, maiatzaren 8an.
Txanda hartzeko udaletxera deitu behar da: 943 13 11 44.

TRASTE ZAHARRAK

■ Orion, maiatzaren 12an, altzari zaharrak jasoko dituzte. Bezperan utzi behar dira edukiontzien ondoan.

KALE ANTZERKIA

■ Orion, maiatzaren 9an, Mimo Clown kale antzerkia, goizez eta arratsaldez.

SUKALDARITZA IKASTAROA

■ Orion, Kultur Aniztasunarean Astearen baitan, *Munduko sukaldaritza* ikastaroa. Maiatzaren 13an, Nikaraguako sukaldaritza. Maiatzaren 20an: Portugal. Maiatzaren 27an: Brasil. 19:00etan, Toki Alai elkartean.

PATIN IKASTAROA

■ Orion, maiatzaren 17an hasita, Orioko Herri Ikastolak antolatuta, patin ikastaroa. Eraman beharrekoak: patinak eta eskumuturretako eta belaunetako babesgarriak (aukeran). Prezioa: 15euro. Astelehen eta asteazkenetan, 18:00etatik 19:00etara, Orioko frontoian.

**Silo boletan aldaketak**

Belar bola plastikoen zerbitzuak aldaketak izango ditu, eskaintza indartu eta hobetzeko. Silo bolak uzteko leku gehiago jarri ditu Udalak. Baserritarren artean informazioa zabaldu bada ere, gehiago jakiteko, 943 13 11 44 –Udala– edo 943 81 65 00 –Urkome– zerbakiara deitu behar da. Maiatzaren 11n izango da silo-bolak egiteko hurrengo aukera.

■ Izena ematea: maiatzaren 10etik 14ra, ikastolako idazkaritzan edo 943 83 47 04 telefono zenbakian, 09:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 18:00etara.

PIRAGUA IRTEERA

■ Orion, maiatzaren 15ean,

Herrio natur taldeak eta Aranzadik antolatuta, piragua irteera Oriako itsasadarrean. Itsasadarrari buruzko azalpenak emango dira. Iraupena: 3-4 ordu. Piragua mugatuak. Prezioa: 3 euro. 16:00etan, ikastola ondoko arranplatik aterata.

■ Izena ematea: Uranga burdindegian, maiatzaren 10etik aurrera.

IPIUIN KONTALARIA

■ Orion, maiatzaren 18an, Pello Añorga ipuin kontalaria. 18:00etan, kultur etxeko liburutegian.

SANPEDROAK

■ Orion, maiatzaren 17an, aurtengo sanpedroak antolatzeko bigarren bilera. 19:00etan, kultur etxean.

MENDI IRTEERA

■ Orion, maiatzaren 23an, Orioko Herri Ikastolak antolatuta, mendi irteera, goiz buelta. Ibilbidea: Orio-Mollari-Zarauzko hondartza- Orio (trenean). Irteera: 09:00etan ikastola aurreko plazan.

SOLASALDIAK

■ Orion, Kultur Aniztasunaren Astearen baitan, munduko herrialdeei buruzko solasaldiak. Maiatzaren 25ean, Mexiko. Hilaren 26an: Bolivia. 19:00etan, kultur etxean.

KULTUR ANIZTASUNAREN JAIA

■ Orion, maiatzaren 29an, Kultur Aniztasunaren II. jaia. 11:00etan hasita, egun osoan, herriko plazan.

AZOKA**Iragarkietarako txokoa**

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

LAN BILA

■ Edadetuak zainduko nituzke. Eskarmentua badut eta erreferentziak ere bai. Tf: 617 71 54 39.
■ Neska gazte eta arduratsuak haurrak udan

zaintzeko: Tf: 664 14 89 92

SALGAI

■ Etxea salgai Goikokalen, 150.000 eurotan. Tf: 657701911.
■ Bigarren eskuko altzariak salgai, egoera onean. Tf: 610 81 80 79.
■ Etxea salgai Eusko Gudarain. Handia eta goxoa da eta ganbara ederra ere badu. Tf: 639 20 27 64.

ETXE BILA

■ Orion alokatzeko pisu bila dabil neska oriotarra. 676 44 13 27 (Ghariba).
■ Orion alokatzeko pisu bila nabil, urte osorako. 676

28 25 88 edo 943 83 15 18 (lan orduetan).

OPARI

■ Txakurkume politik ditugu oparitzeko. Bost hilabete pasatxo dituzte. Deitu lasai 615 71 40 85 telefono zenbakira, baten bat etxera eramán nahi izanez gero.

GALDUTAKOAK

■ Apirilaren azken asteetan semearen lau gurgpileko bizikleta berdea desagertu zitzaigun ikastolako paretik. Izena jartzen du txirrindak: Ander eta Txomin. Norbaitek hartu badu, dei

dezala, mesedez, 667 09 23 96 telefono zenbakira eta Iratxetz galdetu.

■ Moldura urdineko betaurrekoak galdu ditu baten batek Aian. Ume batenak dirudite. Kultur etxean daude jabeak noiz jasoko zain.
■ Graduatutako betaurrekoak agertu ziren apirilaren erdi aldera Itsasadarra aholkularitza bulegoaren aurrean. Moldura finekoak eta more eta gorri kolorekoak dira. Itsasadarraren bulegoan bertan daude.

